

ESTABLEZIMENTU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTU TURISTIKOAK ETA OROTARAKOAK. 2020KO MAIATZA

Hotelek, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak oso modu mugatuan ekin berri diote jarduerari 2020ko maiatzean zehar Euskal AEn

Maiatzean jardueraren bat zuten ostatuaren kopurua 400 izan zen, apirileko 109ko kopuruaren aldean; guztira, 42.919 ostatu-gau izan ziren

Maiatzaren 9ko SND/399/2020 Aginduan ezartzen dira mugak eta baldintzak zeinekin berriz ireki ahal diren martxoaren 19ko SND/257/2020 Aginduaren arabera jardura eten behar izan zuten hotelak eta turismo-establezimenduak. Une horretatik aurrera, establezimenduak pixkanaka ireki dira.

Hala, Euskal AE osoan maiatzean jardueraren bat izan duten establezimenduen kopurua 400 izan da. Apirilean, sektoreko jardura funtsezko edo ezinbesteko langileei ostatu ematera mugatu zen ia, eta jardueraren bat izan zuten establezimenduak 109 baino ez ziren izan. Hala ere, sektorearen irekiera oso mugatua izan da, zeren 2019ko maiatzean jarduerarik zuten establezimenduen kopurua 1.022koa izan baitzen. Izan ere, 745 establezimendu turistiko itxita egon dira maiatz osoan zehar, eta 97 establezimendu egon ziren itxita iazko maiatzean hainbat arrazoiengatik.

Jardura izan duten eta itxita mantendu diren ostatu turistikoak. COVID19 aldia

	Euskal AE				Araba/Álava				Bizkaia				Gipuzkoa			
	maiatza 2020	apirila 2020	martxoa 2020	maiatza 2019	maiatza 2020	apirila 2020	martxoa 2020	maiatza 2019	maiatza 2020	apirila 2020	martxoa 2020	maiatza 2019	maiatza 2020	apirila 2020	martxoa 2020	maiatza 2019
Jarduerarekin	400	109	943	1.022	63	15	171	181	148	48	324	357	189	46	448	484
Itxita	745	1037	204	97	140	188	32	17	247	347	72	30	358	502	100	50

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Sektorearen abiatze motel horrek antzeko eragina izan du hiru lurraldeetan: 63 establezimendu zeuden Araban jardueraren batekin maiatzean (15 izan ziren apirilean), 148 Bizkaian (aurreko hilean 48 izan ziren) eta 189 Gipuzkoan (46 izan ziren apirilean). Urtebete lehenago, 2019ko maiatzean, Araban 181 ostatu-establezimenduk izan zuten jarduerarik, 357k Bizkaian eta 484k Gipuzkoan.

Euskal AEko ostatu turistikoetako gaualdiak eta sarrerak. COVID19 aldia

	Gaualdiak				Sarrerak			
	maiatza 2020	apirila 2020	martxoa 2020	maiatza 2019	maiatza 2020	apirila 2020	martxoa 2020	maiatza 2019
EUSKAL AE	42.919	21.381	167.914	634.258	9.714	2.273	72.432	318.266
ARABA/ÁLAVA	10.692	6.985	24.307	85.075	2.082	702	8.954	41.571
BIZKAIA	15.815	6.717	76.889	288.699	3.321	614	33.319	150.258
GIPUZKOA	16.412	7.679	66.717	260.484	4.311	957	30.159	126.437

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2020ko maiatzean ikusitako sarrera eta gaualdiei dagokienez, 2019ko hilabete bereko zifrekiko konparazioak agerian uzten du COVID 19aren krisiak eragin itzela izan duela Euskal AEko turismo-sektorean. 2020ko maiatzeko sarrerak 9.714 izan dira, guztira 42.919 ostatu-gau, aurreko urteko hil bereko 318.266 sarrera eta 634.258 ostatu-gauen aldean.

2020ko apirilarekin alderatuta, nabarmena da sarrerak eta ostatu-gauak igo egin direla; izan ere, hilabete horretan sarrerak eta ostatu-gauak gutxienean gelditu ziren, 2.273 eta 21.381, hurrenez hurren.

Lurraldeetan, Araban 2.082 sarrera izan dira maiatzean, eta apirilean, berriz, 702; 10.692 ostatu-gau izan dira maiatzean, eta 6.985, berriz, apirilean. Bizkaian, sarrerak 614 izan ziren apirilean, eta 3.321 maiatzean, eta ostatu-gauak 6.717tik 15.815era iragan dira tarte berean. Azkenik, Gipuzkoan 4.311 sarrera izan dira maiatzean, aurreko hilabete 957ko kopuruaren aldean, eta ostatu-gauak apirilean 7.679 izatetik maiatzean 16.412 izatera igaro dira. Kopuru horiek guztiak 2019ko maiatzean erregistratutakoetatik oso urrun daude, eta agerian uzten dute aparteko neurriek eragin arras handia izan dutela hiru lurraldeetan turismoaren sektorean.

Apartamentu turistikoak

Apartamentu turistikoen kasuan, 45 establezimenduk erregistratu dute jarduerarik maiatzeko egunen batean, eta 79 establezimenduk 2019ko maiatzean. Aitzitik, 55 establezimendu itxita egon dira aldi osoan, eta 2019an 5 bakarrik egon ziren itxita. Apirileko datuekin alderatuta, jarduerarik izan duten establezimenduak ia bikoiztu egin dira (22 izan ziren aurreko hilean) eta itxitako establezimenduak, 78 apirilean, nabarmen jaitsi dira.

Establezimenduak irekitzeko erritmoa homogeneoa izan da hiru lurraldeetan. Araban, apirilean jarduera zuten 6 establezimendutik maiatzean 13ra igaro da; Bizkaian, berriz, 8tik 14ra iritsi da, eta, azkenik, Gipuzkoan 18 establezimendu ireki dira azken hilabetearen, apirileko 8en aldean.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren apartamentu-establezimenduaren unitateak. COVID19 aldia

	C.A. Euskadi				Araba/Álava			mai at za 2019	Bizkaia				Gipuzkoa			
	mai at za 2020	api ri la 2020	mar tx oa 2020	mai at za 2019	mai at za 2020	api ri la 2020	mar tx oa 2020		mai at za 2020	api ri la 2020	mar tx oa 2020	mai at za 2019	mai at za 2020	api ri la 2020	mar tx oa 2020	mai at za 2019
Jarduerarekin	45	22	82	79	13	6	20	19	14	8	24	25	18	8	38	35
Itxita	55	78	18	5	10	17	3	1	17	23	7	1	28	38	8	3

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetan guztira erregistratu diren sarrerak 954 izan dira maiatzean, eta 2019ko hilabete berean 7.523 izan ziren. Aurreko hilabetearen, 2020ko apirilean, sarrerak 576ra mugatu ziren. Antzeko bilakaera ikusten da ostatu-gauen kopuruan, hobekuntza nabarmena izan baita apirileko datuekin alderatuta (7.869 maiatzean, eta 6.570, berriz, apirilean), baina 2019ko maiatzetik oso urrun, noiz 26.548 ostatu-gau izan baitziren.

Arabak 183 sarrera eta 3.080 ostatu-gau zenbatu ditu, Bizkaia 546 sarrera eta 2.730 ostatu-gau eta Gipuzkoak 225 sarrera eta 2.059 ostatu-gau.

Euskal Aeko apartamentu-turistikoen establezimenduetako gualdiak eta sarrerak. COVID19 aldia

	Gualdiak				Sarrerak			
	maiatza 2020	apirila 2020	martxoa 2020	maiatza 2019	maiatza 2020	apirila 2020	martxoa 2020	maiatza 2019
EUSKAL AE	7.869	6.570	11.446	26.548	954	576	2.110	7.523
ARABA/ÁLAVA	3.080	2.807	3.749	7.037	183	59	400	890
BIZKAIA	2.730	1.924	3.519	11.043	546	409	933	4.182
GIPUZKOA	2.059	1.839	4.177	8.468	225	108	777	2.451

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

COVID-19-AREN KRISIAK TEH-ETAN IZAN DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu du COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.

Gerora hartu diren salbuespenezko neurriek inpaktu zuzena izan dute turismo-establezimendu hartzaileen ohiko jardueran. Itxiera ia erabatekoa izan zen, harik eta maiatzaren 9ko SND/399/2020 Aingindua argitaratu zen arte; bertan, mailaz mailako irekiera mugaturako oinarriak ezartzen dira.

Egoera horrek ekarri du ETHI eraikitze beharrezkoa den informazioa lortzeko egindako ahalegina handitu izana, bai informazioa biltzen eta tratatzen diharduten langileen aldetik, bai, batez ere, inkestatutako establezimenduen aldetik.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, zabaldu ahal izan da hartutako neurriek sektorean izan duten eragina kuantifikatzeko aukera ematen duen informazio hau.

Maiatzeko zabalkundea, oraingoz, prentsa-ohar honetara mugatuko da. Eragiketa honetako gainerako produktuak behin betikotzat jotzen direnean zabalduko dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62